

Hiria eta itsasoa lotuko dituen egitarauarekin amaituko da Olatu Talka, Kaian maiatzaren 21ean

Egun osoan zehar ekitaldiak izango dira Kaian eta baita food truck-ak ere

Maiatzaren 19, 20 eta 21ean izango den **Olatu Talka** jaialdiaren programa osoa aurkeztu da gaur, eta bertan batez ere igandean jaialdiari amaiera emango dion egitarau edo festari eman zaio garrantzia, izan ere, **hiria eta itsasoa lotuko dituen egitarau oparoarekin bukatuko da jaialdia Donostia Kaian**. **Miren Azkarate** 2016 Hiriburutzako, Kulturako, Euskarako eta Hezkuntzako zinegotzi ordezkaria, **Jon Aizpurua** Olatu Talka jaialdiko zuzendaria, **Ane Artetxe** Easo Musika Eskolako kidea, **Oier Gil** Bitamine faktoriako kidea eta **Sara Zozaya** Gure Bazterrak elkarteko kidea izan dira prentsaurrekoan Olatu Talka jaialdiaren programaren berri emanez.

Miren Azkarate zinegotziak jaialdiak aurten duen **erronka** izan du hizpide, izan ere, lehenengo aldiz **Donostia Kulturak** hartuko du jaialdia antolatzeko ardura. Azkaratek azaldu duenez, "Olatu Talka jaialdia lehenengoz 2010. urtean egin zen, Donostia 2016 egitasmoa oraindik hautagaitza fasean zegoenean. Orduetik iazko Europako Kultur Hiriburutzaren urtera arte ibilbidea elkarrekin egin dute Olatu Talkak eta DSS2016EUK, eta Olatu Talkak Hiriburutzaren espirtua bereganatu du. Zazpi jaialdi ondoren, zortzigarren hau ere **herritarrek Olatu Talkarekin duten konpromisoa, inplikazioa eta izaera aktiboaren adierazle** izango da". Ideia hori azpimarratzeko eta herritarren inplikazioaren adierazle Miren Azkaratek **bi datu aipatu ditu**: alde batetik, aurten **eragile eta herritarrek Olatu Talkan ekitaldiak egiteko iaz baino proposamen gehiago** aurkeztu dituztela, **%15 gehiago** eta, bestetik, **alde aurretiko izen-ematea** eskatzen duten ekitaldietan **parte hartzea oso handia** izan dela, eta eskainitako **ia tailer eta ibilbide gehienak bete egin direla**. Horrela jarraitzeko deia egin die Azkaratek herritarrei eta eta **Olatu Talkaz goza dezaten opa** die.

Jon Aizpurua jaialdiko zuzendariak **aurretiko izen-emateen** gaia aipatu du eta aipatu du, **800 lagun baino gehiagok** eman dutela izena tailerretan eta ibilbideetan, eta batez ere **Urumea ibaian** ATARI elkarteak eta **Badian** Ambar elkarteak antolatutako bidaia azpimarratu ditu, izen-emateak martxan jarri eta egun gutxitan bete baitziren bi ibilaldiak.

Aizpurua Olatu Talka jaialdiaren programa mardula azpimarratu du 100dik gora ekitaldirekin eta 65 talde edo bakarlariren emanaldiekin, baina batez ere igandean Donostiako Kaian egingo den amaiera festa azpimarratu du. Aizpurua azaldu duenez, maiatzaren 21eko ekitaldi gehienak Kaian izango dira eta hiria eta itsasoaren arteko lotura izango du ardatz. Aizpurua azaldu du itsas-bidaia didaktikoa izango dela Kantauri itsasoko fauna ezagutzeko, itsasoari eta Aita Mariri buruzko kontuak kontatuko dituzte narratzaile batzuk, Donostiako Kaiari buruzko dokumentala ere emango da, Kaiaren edertasuna azaltzeko marrazketa maratoia ere izango da... Aizpurua, halaber, azpimarratu du artearekin eta musikarekin lotutako ekitaldi ugari izango direla Kaian.

Ondoren, ekitaldi zehatzak aurkeztu dituzte bertaratutako eragileek.

ARTEAREKIN LOTUTAKO JARDUERAK KAIAN

Oier Gil Bitamine faktoriako kideak azaldu ditu jarduera hauek, beraiek antolatutako ekimenarekin hasita:

1- Transbita, arte garaikidearen gunea

Bitamine faktoriak artea eta kultura garaikidea publiko guztiei helarazi nahi dio, **jendartean kuriositatea, interesa eta pentsamendu kritikoa sustatzeko**, eta helburu horretarako gunea bat jarriko da **Mollaberrian**. Bertan hainbat ekitaldi egingo dira.

Alde batetik, Bitamine Faktoriak, mugaz gaindiko **sormen lantegia, soinu esku-hartze parte-hartzailea** antolatu du, **Sekretu ozenak** izenekoa. Herritarrak sekretu bat partekatzerara gonbidatuko ditu, era anonimoan, eta ondoren, modu berezian airera zabalduko dute. Ekintza hau egiteko Transbita gailu mugikorra erabiliko dute.

Bestetik, gunea horretan bertan **Banaiz erakusketa** egongo da, Jon Jauregi Zubeldiaren erakusketa.

Azkenik, gunea horretan bertan **kontzertu bereziak** eskainiko dira: **Orchiday** (16:00) eta **Gorpuzkingz** (17:00)

2- Esku-hartze artistiko-aldarrikatzailea

Goizeko 10:00etatik hasita **Gaztelubide kalean** (Urgulleko igoera) esku-hartze artistikoa egingo da. **Marko paregabea** izeneko esku-hartzean herritarrek irudiak margotzeko aukera izango dute, bere garaian pareta horretan azaldu zen **ustezko Banksyren grafitiari keinu eginez**. Ekimena Orixe Ikastolako Guraso Elkarteak eta Bigarak bultzatu dute.

3- "Human Web Art", instalazio artistikoa

Hilaren 17an hasita, **Elena Scaratti** artista italiarrak instalazio berezi bat egingo du **Portaletasen**, zehazki **sare berezi bat ehunduko du**. Lan horretan **UBAko bost gazteren laguntza** izango du. Halaber, herritarrentzat **irekia** izango da eta artistak **parte hartzeko deia** egin du.

MUSIKA EMANALDIAK KAIAN

Ane Arretxe Easo Musika Eskolako kideak igandean Kaian izango diren musika eta dantza emanaldiak aipatu ditu.

1- "Harp & Co and Dance"

Easo Musika Eskolak **oso emanaldi berezia** antolatu du Olatu Talkarako. **Zortzi harpa-jotzaile eta dantzari bat** elkartuko ditu oholtza gainean, **14:00etan**.

2- Izarrak Plazara

Izarrak Plazara ekimeneko **castingean sailkatutako 12 eta 17 urteko** gazteek osatutako **zazpi taldek** emanaldia eskainiko dute Kaiko agertoki nagusian. Euren ikuskizuna adituekin egindako klase berezietan landu dute eta igandean **11:00etan** jendaurrean erakutsiko dute.

3- Orfeoi txikien emanaldia

Donostiako Orfeoi txikiak eta **Orfeo Catalá-ko txikienek** emanaldi bateratua eskainiko dute oholtza nagusian 12:30etik aurrera.

4- Akordeoi topaketa

Donostiako Musika eta Dantza Eskolak antolatutako akordeoi topaketa handia egingo da eszenatoki nagusian, igandean **16:15ean**. Haiekin batera ariko da **Toxic** konpartsa.

MUSIKA GUNE BEREZIAK LARUNBATEAN

Gure Bazterrak elkarteko Sara Zozayak erabiliko diren gune berezien berri eman zuen, bere elkarteak antolatutako kontzertuarekin hasita.

1- Gure Bazterrak - Eustasio Amilibia plaza

Eustasio Amilibia plaza kontzertu gune bihurtuko du **Gure Bazterrak** taldeak. Ez da oso ohiko plaza horretan ekitaldiak eta antolatzea, baina Olatu Talkak uste du **gune egokia** izan daitekeela **lurzorua erabilera publikoa sustatzeko** eta horregatik kontzertuak izango dira aurtien bertan. Honako talde hauek ariko dira:

18:00 SZ (Indie)

19:00 Noah (Folk Rock)

20:00 Cora Sayers (Rock Pop)

21:00 Noga – Unax Nogales (Pop Soul & Country Pop)

22:00 Autumn (Indie Rock Pop)

2- Basoka

Azken urteetan bezala, aurtien ere Basoka izango da **Miramongo basoan**. Gune berezi hori kontzertu gune bilakatuko da **Stringedwood Musika Elkartearen** eskutik. Maiatzak 20an, larunbatean, izango da jarduera, 18:00etan hasita. Hauxe kontzertu zerrenda:

18:00 Iker Lauroba

20:15 Indigo

18:45 Luke Armstrong

21:00 Jon Busselo

19:30 Charles Atkey

21:45 Ane Leux